# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**2021**

EBAZPENA, 2011ko apirilaren 7koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduan deitutako hautaketa-prozesuan kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena programazio didaktikoa edota unitate didaktikoa ez aurkeztea-gatik. Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoan sartzeko zen.

***Lehenengoa.***– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren, 2011ko urtarrilaren 10ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutakoaren bidez, deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurarako.

***Bigarrena***.– 2010eko abenduaren 17ko Agindu horretan, 7.1 oinarrian, adierazten da izangaiek 2011ko otsailaren 14a eta otsailaren 28a bitartean entregatu beharko zutela programazio didaktikoa. Data horretan bertan, B.2 ariketaren ordez txostena hautatu dutenek dagokien unitate didaktikoa entregatu beharko dute.

Halaber, programazio didaktikoak eta unitate didaktikoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Interneten duen helbidean entregatu beharko direla adierazten da (http://irakasle.net edo http://hezkuntza.ejgv.euskadi.net), formatu elektroniko hauetako batean:

– Microsoft Office 2007 edo aurrekoa.

– Open Office 3.2 edo aurrekoa.

– Fitxategiak Portable Document Formaten (PDFn).

***Hirugarrena***.– Langileriaren Kudeaketako zuzendariak, 2011ko otsailaren 1eko ebazpenaren bidez, dokumentu horiek entregatzeko jarraibideak eman zituen, eta ebazpena Hezkuntzako lurralde-

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**2021**

RESOLUCIÓN de 7 de abril de 2011, del Director de Gestión de Personal, por la que se aprueba la relación provisional de personas excluidas del proceso selectivo convocado por Orden de 17 de diciembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, para el ingreso en los Cuerpos de Maestras y Maestros, Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, Profesores y Profesoras de Escuelas Oficiales de Idiomas y Profesores y Profesoras de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, por no haber presentado la programación didáctica y/o la unidad didáctica.

***Primero***.– Mediante Orden de 17 de diciembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, que se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco de 10 de enero de 2011, se convocó procedimiento selectivo para el ingreso en los Cuerpos de Maestras y Maestros, Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, Profesores y Profesoras de Escuelas Oficiales de Idiomas y Profesores y Profesoras de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

***Segundo***.– En la mencionada Orden de 17 de diciembre de 2010, en la base 7.1 se indica que entre el 14 de febrero y 28 de febrero de 2011 las personas aspirantes deberán hacer entrega de la programación didáctica. En esa misma fecha quienes hubieran optado por sustituir el ejercicio B.2 por un informe habrán de hacer entrega de la unidad didáctica correspondiente.

Asimismo, también se indica que las programaciones didácticas y las unidades didácticas deberán entregarse en la dirección de Internet del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (http://irakasle.net o http://hezkuntza.ejgv.euskadi.net), con los siguientes formatos electrónicos:

– Microsoft Office 2007 o inferior.

– Open Office 3.2 o inferior.

– Ficheros en Portable Document Format (PDF).

***Tercero***.– Mediante Resolución de 1 de febrero de 2011, del Director de Gestión de Personal, se dictaron las instrucciones correspondientes en relación con dicha entrega; dicha resolución se hizo pública

ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Internet helbidean argitaratu zen (http://www.irakasle.net edo http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net).

***Laugarrena***.– Deialdiaren 7.1 oinarrian xedatutakoari jarraiki, programazio didaktikoa epearen barruan, gorago aipatutako Interneteko helbidean eta formatu elektronikoren batean aurkezten ez bada, ezingo da prozesu horretan jarraitu, eta, ondorioz, izangaia berehala baztertuko da hautaketa-prozeduratik.

Era berean, hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko dira unitate didaktikoa epearen barruan aurkezten ez dutenak, betebehar hori baldin badute, eta baita gorago aipatutako Interneteko helbidean eta formatu elektronikoren batean entregatzen ez dutenak ere.

***Bosgarrena***.– Deialdiaren 6.2.1.2 oinarrian aurreikusitako programazio didaktikoa, edota deialdiaren 6.2.1.4 oinarrian aurreikusitako unitate didaktikoa, ezarritako epearen barruan eta aipatutako Interneteko helbidean, eta formatu elektronikoetan aurkeztu ez duten izangaiak (betebehar hori dutenak) badirela egiaztatu da.

Hori guztia dela eta, hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.–*** 2010eko abenduaren 17ko Aginduan deitutako hautaketa-prozesuan kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea programazio didaktikoa edota unitate didaktikoa –aipatutako 2010eko abenduaren 17ko Aginduaren 6.2.1.4 oinarrian aurreikusitakoa– ez aurkezteagatik, edota ezarritako Interneteko helbidean eta formatu elektronikoetan ez entregatzeagatik (Agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoan sartzeko zen).

***2. artikulua.–*** Zerrenda hori Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Interneten dituen helbideetan argitaratuko da: http://www.irakasle.net eta http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net.

***3. artikulua.–*** Hautaketa-prozesutik baztertutako izangaien behin-behineko zerrendaren kontra erreklamazioa aurkez dezakete izangaiek. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 7a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.

en los Tablones de Anuncios de las Delegaciones Territoriales de Educación y en la dirección de Internet del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (http://www.irakasle.net o http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net).

***Cuarto***.– Conforme a lo dispuesto en la base 7.1 de la convocatoria, el no presentar en plazo la programación didáctica, así como el no entregarla en la dirección de Internet y en alguno de los formatos electrónicos arriba indicados, supone la imposibilidad de continuar dicho proceso y como consecuencia la exclusión inmediata del aspirante del procedimiento selectivo.

Igualmente, quedan excluidos del procedimiento selectivo aquéllos que no aporten en plazo la unidad didáctica, en el caso de que en ellos concurriera tal obligación, así como quienes no la entreguen en la dirección de Internet y en alguno de los formatos electrónicos arriba indicados.

***Quinto***.– Comprobada la existencia de aspirantes que no han presentado en el plazo establecido al efecto y en la dirección y formatos electrónicos indicados, la programación didáctica prevista en la base 6.2.1.2 de la convocatoria y/o la unidad didáctica prevista en la base 6.2.1.4 de la convocatoria (en el caso de concurrir tal obligación).

Por todo ello,

RESUELVO:

***Artículo 1***.– Aprobar la relación provisional de personas excluidas del proceso selectivo convocado por Orden de 17 de diciembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, para el ingreso en los Cuerpos de Maestras y Maestros, Profesores y Profesoras de Enseñanza Secundaria, Profesores y Profesoras de Escuelas Oficiales de Idiomas y Profesores y Profesoras de Música y Artes Escénicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, por no haber presentado en plazo la programación didáctica y/o la unidad didáctica prevista en la base 6.2.1.4 de la citada Orden de 17 de diciembre de 2010, o no haberlo hecho en la dirección de Internet y formatos electrónicos establecidos.

***Artículo 2.***– Dicha relación se publicará en las Delegaciones Territoriales de Educación y en las direcciones de internet del Departamento de Educación, Universidades e Investigación: http://www.irakasle.net y http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net.

***Artículo 3.***– Contra la relación provisional de personas excluidas del proceso selectivo se podrá presentar reclamación en el plazo de 10 días hábiles, contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de abril de 2011.

El Director de Gestión de Personal,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.